



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urtarrilaren 3a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-ekipamenduak abiarazteko plan zuzendari bat aurkez dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsonen laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoa ebalua dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Foruzaingoaren buruaren lansariei eta ordainsariei buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egin (5. or.).
- Galdera, bulego judizial berria dela-eta eskaturiko azterlanei, haren kokalekuari eta abarri buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egin (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2008rako (7. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2008rako (8. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2008. urterako ordutegi ofiziala (8. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea (9. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduko 25. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzea (15. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-ekipamenduak abiarazteko plan zuzendari bat aurkez dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-ekipamenduak abiarazteko plan zuzendari bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Hezkuntza sektoreek, udalek eta, oro har, herritarrek egiazta dezaketenez, ez da aurreikuspenik eta plangintzarik egin eskola-ekipamenduei buruz, Iruñerrian bereziki.

Esaterako, honakoak aipa daitezke:

– Etxe ugari eraikitzearen ondoriozko biztanle kopuruaren handitzea Sarrigurenen, Buztintxurin, Mendillorin, Sanduzelain, Antsoainen, Burlatan, Esteribarren eta abar.

– Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako masifikazioa, D ereduan bereziki.

– Ikastetxe askoren hondatzea (Arturo Kanpion, Pedro Axular, Atakondoa, Zubiri, Txantrea....)

Nafarroako Gobernuaren plangintza falta horrek, bai eta 2008rako Nafarroako aurrekontuetan hezkuntza publikoari esleitutako diru urriak, arazo honek izan dezakeen konponbideari buruzko hausnarketa serioa egitera behartu du parlamentu-talde hau.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean beste plan zuzendari bat aurkez dezan eta berehala abiaraz dezan, halako moduz non beharrezkoa duten hezkuntza ereduak bermatuta izanen duten eskola-ekipamenduen eraikuntza, aurretik beharrak xehetasunez eta hezkuntza sektoreen parte-hartzearekin aztertuta.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsonen laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoa ebalua dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsonen laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoa ebalua dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida dadin, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita, Nafarroako arartekoak gure zaharren eskubideei buruz eginiko txosten bereziarekin bat –arartekoak gaur bertan aurkeztu du Foru Araubideko Batzordean–, susta dezan, lehenbizi, Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsonen laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoaren ebaluazioa eta, gero, presta eta aurkez dezan Parlamentuan adinekoei buruzko plan bat.

Zioen azalpena

Nafarroako arartekoak gaur, 2007ko abenduak 20, Foru Araubideko Batzordean gure zaharren eskubideei buruzko txosten berezi bat aurkeztu du; erakunde horrek txosten hori egin du botere publikoak Nafarroako adindunen egoerari buruz sensibilizatzearen.

Txostenean jasotako gomendioen eta iradokizunen artean, besteak baztertu gabe, premia han-

diagokoak dira, parlamentu-talde honen iritziz, 1. eta 2. zenbakietan jasotakoak.

Justifikazio eta aurrekari modura, Nafarroako arartekoaren erakundeak argudio hau ematen du:

“Arartekoaren ustez, Nafarroako zaharren eskubideak hobeto babestu eta sustatzeko, egiturazko oinarrizko neurriak hartu behar dira, horretarako politika aktibo eta osoa finkatzeko. Hori dela-eta, honako gomendio eta iradokizun hauek egin ditu:

1. Nafarroako Gobernuak Gizarte Gaietako Departamentuari gomendatzea Nafarroako administrazio publikoek orain artean zaharrak alor guztietan laguntzeko aplikatu duten politika publikoaren ebaluazioa egiteko. Politika publikoa ebaluatzeko, Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak oso erreferente baliagarriak eta guztiek onartutakoak dakartza.

2. Nafarroako Gobernuari gomendatzea ebaluazioa aztertu eta Zaharrei buruzko Foru Legea aldarrikatzeko edo Zaharrendako Plana egiteko, gizartearen zati handi baten laguntzaz, zaharren eskubideak sendotze eta zaharrak babestu eta laguntzeko eta zahartzaro aktiboa sustatzeko politika osoen esparru orokorra zehazte aldera. Foru Legearen edo Planaren, dena delakoaren edukia horizontala eta askotarikoa izan daiteke, eta zaharrek aisialdiaren, kulturaren, etxebizitzaren, oztopoen, osasunaren, gizarte zerbitzuen, pentsioen, heziketaren... alorrean dituzten behar espezifikoak kontuan hartu behar ditu.”

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsonen laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoaren ebaluazioa egin dezan 2008ko lehenbiziko seihilekoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behin ebaluazio hori burututa adinekoei buruzko plan bat aurkez dezan Parlamentuan, 2008ko bigarren seihilekoan, adi-

neko pertsonen partaidetza handiarekin prestatua, adinekoen eskubideak indartze eta sendotze aldera eta, halaber, adinekoak babesteari eta artatzeari buruzko politika integralen nahiz zahartzaro aktiboa sustatzeko politika integralen esparru orokorra zehazte aldera.

Plan horrek, zeina gero foru lege batean jaso ahalko bailitzateke, eduki horizontala eta askotari-

koa izan beharko du, eta kontuan hartu behar ditu populazio-talde honek hainbat alorretan dituen behar espezifikoak, hala nola honakoetan: aisialdia, kultura, etxebizitza, erabilerraztasuna, osasuna, gizarte zerbitzuak, pentsioak, hezkuntza...

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

F saila:
GALDERAK

Galdera, Foruzaingoaren buruaren lansariei eta ordainsariei buruzkoa.*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Foruzaingoaren buruaren lansariei eta ordainsariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aman-

da Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Lehendakari, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zer lansari, dirusari edota edozein modutako ordainsari jasotzen zuen Foruzaingoaren buruak, Polizia Nazionalen gora egiteko ikastarora joateko baimena lortu aurretik? Zehatz bitez sari horiek.

2. Azaroaren 10etik hona, jaso al du edo jasotzen al du inongo ordain ekonomikorik, gauzaz edo beste inola, Nafarroako funts publikoen eta/edo ondare publikoaren kargura? Hala bada, zehatz bitez zenbatekoa eta azalpena.

3. Noiz arte aurreikusi da izanen dela behin-behinekoa Foruzaingoaren buru berriaren egoera? Zehatz bedi zer egunetara arte, edo, gutxienez, zer hilabete eta urtetara arte.

Iruñean, 2007ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, bulego judizial berria dela-eta eskaturiko azterlanei, haren kokalekuari eta abarri buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, bulego judizial berria dela-eta eskaturiko azterlanei, haren kokalekuari eta abarri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

1. Eskatu al du Departamentuak, eta eman al diote amaituta, azterlanik bulego judizial berriari buruz (jardute-aukerak eta -beharrak, eredia eta abar)? Hala bada, dokumentu hori nahi genuke.

2. Zer gune egokitzea aurreikusi du Departamentuak bulego judizial berria kokatzeko? Zer kokagune aurreikusi du?

3. Bulego judiziala abian noiz jarri ahal izatea aurreikusten du Departamentuak?

Iruñean, 2007ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2008rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari nagusiaren txostena ikusirik, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2008ko egutegia onestea. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

– Uztailaren 7a, 8a, 9a eta 10a: San Fermine-tako jaiegunak.

– Maiatzaren 2a, uztailaren 11 eta 14a eta abenduaren 26a: jaiegunak.

– Abenduaren 24a eta 31: lanaldia 09:00etatik 14:00etara.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko administrazioarako oro har ezarritakoak.

2. Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostiralera.

Urtarrilean, lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30ak eta

08:30ak bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30ak eta 15:30ak bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30ak eta 08:30ak bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00ak eta 15:00ak bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6,30 ordu benetako bete beharko dira lanean.

3. Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

a) Goizeko txanda.

b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

c) Arratsaldeko txanda.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan argitaratzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 27an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2008rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 108. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2008. urterako hauxe izanen dela ezartzea:

Ohiko bilkuraldiak:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:30era.

17:00etatik 19:00etara.

– Larunbatak: itxita.

– Maiatzaren 2an eta abenduaren 26an itxita egonen da, eta horiek egun baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

– Abenduaren 24an eta 31n: irekita 09:00etatik 14:00etara.

Bilkuraldien arteko aldia:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

– Larunbatak: itxita.

Uztailaren 7, 8, 9, 10, 11 eta 14an itxita egonen da, eta horiek egun baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

2. Igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak ere baliogabeak izanen dira.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 27an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2008. urterako ordutegi ofiziala.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak honako erabakia hartu du:

Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honetara zuzendutako dokumentazio ofiziala hartzearen ondorioetarako, lehendakaritza honek honakoa erabaki du:

Lehen. Ezartzea Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2008. urterako ordutegi ofiziala 8:30etan hasi eta 14:30etara bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea, Comptos Ganberara zuzendutako dokumentazioa erregistratzearen ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Oro-

korra itxita egonen dela larunbatetan, igandetan eta Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren abenduaren 5eko 540/2007 Foru Aginduan ezarritako jai egunetan, bai eta uztailaren 11, eta 14an, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Erabaki hau igortzea Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta administratzaileari eta erakunde horretako iragarki oholean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 28an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts –horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea– lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarrien araberaren da.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 17an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea

OINARRIAK

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzea. Lanpostu horietako batek baldintza gisa du euskara titulu ofiziala izatea.

1.2. Lekualdatze lehiaketa honetan honakoak izanen dira arau: Nafarroako Parlamentuan lanpostuak lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko Erregelamendua (21. NPAO, 2007ko martxoaren 7koa) eta 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua; horien osagarri izanen dira Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatu eta betearazteko eman zen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua, Lanpostuak Betetzeko Erregelamendua onesten duena.

1.3. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat eta, bereziki, administrarien kidegoarentzat ezarri-

tako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

Eginkizun horiek, orokorrean, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8.3. artikuluan daude ezarrita administrarien kidegoarentzat: exekuzio-, laguntze- eta izapidetze-lanak egitea, Legebiltzarreko organoei laguntza administratibo ematea; halaber, mekanografia- eta artxibo-lanak gauzatzea, oinarrizko kalkuluak egitea, kontabilitate liburuak edukitzea eta antzeko beste batzuk.

Era berean, eta modu zehatzagoan, Nafarroako Parlamentuko administrazio antolamenduari buruzko 1992ko azaroaren 9ko Erregelamendua zerbitzu bakoitzari esleitzen dizkion eginkizunetarik, atxikita dauden zerbitzuari eta mailari dagozkien eginkizunak:

Erregistro orokorra kudeatzea eta jendeari harrera egitea; parlamentu-kudeaketarekin zerikusia duten eginkizun administratiboak, esaterako deialdiak, gai zerrendak, jakinarazpenak, erabakien transkripzioa, aktak eta abar; kontratazio-espedienteekin (obrak, mantentze-lanak eta langileen kudeaketa) zerikusia duten eginkizunak; espediente parlamentarioak nahiz administratiboak eta Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretan sortutako gainerako dokumentazioa artxibatzearekin eta gordetzearekin zerikusia duten eginkizun administratiboak.

Hurrengo gaien kudeaketarekin eta hedapenarekin zerikusia duten eginkizun administratiboak: Legebiltzarreko liburutegiko funts bibliografikoa eta artxiboa; parlamentarien, Legebiltzarreko organoen eta administrazio parlamentarioaren zerbitzura dagoen dokumentazio sistema; beste erakunde eta entitate batzuekiko dokumentazio- eta argitalpen-trukeak; harrera eta liburuaren mailegua, eta Legebiltzarreko Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuan sortutako gainerako dokumentazioa.

Eginkizun administratibo horiek, gehienetan, baliabide informatikoen bidez egiten dira, eta, horretarako, ofimatikako tresnak eta bestelako aplikazioak oso ongi ezagutu eta erabiltzen jakin behar da.

Euskaraz jakitea beharrezkoa den administrari lanposturako izendatzen den pertsonari, beharrezkoa denean, bere eginkizunak euskaraz betetzea egokituko zaio, eginkizunak hala gauzatzen dire-

nean edo eginkizunak betetzeko beharrezkoa denean euskaraz jakitea.

1.4. Lanpostuak C mailakoak dira eta lansariak maila horri dagozkionak izanen dira, eta Nafarroako Parlamentuko plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.5. Lanaldia goiz eta arratsaldekoa izanen da, eta Parlamentuko organo eskudunek edonoiz aldatu ahal izanen dute.

1.6. Deialdi honetako lanpostuei geroago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkie, alegia, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

2. oinarria.- Izangaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu huts horiek lekualdatze lehiaketaren bidez beteko dira. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko, Comptos Ganberako eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioek, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) C mailako funtzionarioa izatea.

b) Goi Mailako Batxilergo, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edo haien baliokidea den titulu baten jabe izatea.

c) Administrari zein administrari-ofizial lanpostu baterako izendatua izana, edo antzeko lanpostu baterako, baldin eta eginkizun nagusien artean deialdi honetako 1. oinarriko 3. idat-zatikoak baditu.

d) Euskaraz jakitea berariazko baldintza den lanpostua eskuratu nahi bada, honako titulu hauek izatea: euskarazko gaitasun agiria (goi zikloa), hizkuntza eskola ofizial batek emana, EGA titulu, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak (NAPI) euskarazko 5. maila egiaztatze eginiko probak gainditu izanaren ziurtagiria, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den beste titulu bat. Bestela, euskararen jakintzan 5. maila egiaztatzen duen proba bat gaindituko beharko da; proba hori NAPIk eginen du, izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu aurretik.

2.2. Lanpostu erreserbarik gabe borondatezko eszedentzian edo nahitaezko eszedentzian dauden funtzionarioek zilegi izanen dute lehiaketan parte hartzea, baldin eta deialdiak eskatzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; horrela, berriz

sartuko dira jarduneko zerbitzuan eta lanpostu bat behin betikoz esleituko zaie.

2.3. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epe eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko direla ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. arau honen 1. atalean aipatzen diren baldintza guztiak hautapen prozesuak iraun bitartean bete beharko dituzte. Hautapen prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. oinarria.- Eskaerak eta aurkezteko epea.

3.1. Lekualdatze lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa, eredu ofizialaren arabera (deialdi honen II. eranskinean ageri da), aurkeztu beharko dute, eta bertan ondokoak azaldu: izen-abizenak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, izanez gero.

3.2. Eskaerari honakoak erantsi beharko zaizkio:

– Izangaiek deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean betetzen dituela egiaztatze ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta horien ziurtagiriak, behar bezala kautotuak.

– Euskara berariazko baldintza den lanposturako, honakoak: gaitasun agiria (goi zikloa) edo aurreko 2.1. d) oinarrian adierazitako balio bereko tituluren bat, edo, bestela, izangaiek adieraztea euskararen jakintzan 5. maila baduen erakutsiko duen proba egin nahi duela.

3.3. Deialdian parte hartzeko eskaerak Nafarroako Parlamentuko lehendakari txit garaiari zuzenduko zaizkio, eta Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira, edo Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetakoren batean. Eskaerak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar amunetik kontatzen hasita.

Eskaerak aurkezteko epea luzaezina da.

4. oinarria.- Izangaien onarpena.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarro-

ako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrendan, onartutako izangaien izen-deiturak agertuko dira.

4.2. Interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka, eta, akatsik izan bada, horiek zuzendu, betiere zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epean.

4.3. Ezarritako epean eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Hautagai bakarria ere onartuko ez balitz, lehiaketa eman gabe utziko litzateke.

4.5. Baztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko da.

5. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen kideak, eraketa eta jarduna.

5.1. Hauek dira lehiaketa epaitu behar duen epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua: Javier Fortún Pérez de Ciriza jauna, Liburutegi, Artxibo eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Carlos Gil Martínez jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatutako kide bat.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatutako kide bat.

Idazkaria: Francisco del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

Ordezkoa: Silvia Domenech Alegre andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epean eratu behar da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon behar du.

5.3. Epaimahaiak jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon behar du.

Erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartu behar dira, eta epaimahaiko burua kalitateko botoaz baliatu ahalko da.

5.4. Langileen Batzordeak izendatutako kideak nor diren Parlamentuko lehendakariari jakinarazi behar zaio behin-behineko zerrenda edota, haren beharrik ez balego, behin betiko zerrenda argitaratu ondorengo bi egunetan. Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5.5. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

6. oinarria.- Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Nafarroako Parlamentuan lanpostuak leku-aldatze lehiaketa bidez betetzeko Erregelamenduko 5.1 artikuluan xedatuarekin bat, alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak deialdi honen I. eranskinean azaldutako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Merezimendu guztiak izangai bakoitzak leku-aldatze lehiaketan parte hartzeko bere eskabidea aurkezten duen unean alegatu eta agiri bidez frogatu behar dira.

Izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu epaimahaiak.

6.3. Epaimahaiak ezin izanen du baloratu, inola ere, alegatu ez den eta agirien bidez frogatu ez den merezimendurik, ez eta atal bakoitzean zehazturiko gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

6.4. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzintasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Hori eginagatik ere, berdinketak hautsi gabe jarraitzen badu, lehiakide zaharrena alde eginen da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak izangaiek lorturiko puntuazioak paratuko ditu Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean, eta bost eguneko epea irekiko du interesdunek beren eskubidearen mesedetan balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten. Iragarpen horretan jakinaraziko da, era berean, proba praktikoa eta txosten psikoteknikoa non, zer egunetan eta zer ordutan eginen diren.

7. oinarria. Lanpostuaren eduki eta eginkizunei eta Nafarroako Parlamentuaren gaineko ezagutzari buruzko proba praktikoa.

Bi ariketa egin beharko dira, idatziz; bi ordu izanen dira, gehienez ere, ariketa bakoitza egiteko. Ariketa bakoitzeko hamar puntu lortu ahalko dira, eta proban, guztira, hogeitun puntu lortu ahalko dira gehienez.

Lehenbiziko ariketan, zenbait galderaren bidez, honakoen ezagutza baloratuko da: Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta Nafarroako Parlamentuko administrazioako antolamenduari buruzko Erregelamendua.

Bigarren ariketa proba praktikoa bat izanen da, Nafarroako Parlamentuan administrari lanean ohiakoa den oinarriko informatikaren inguruko funtsezko ezagutzei buruzkoa: hardwarea, softwarea (Word, Access eta Excel) eta Windows sistema eragilea, bai eta Internet (Explorer) eta posta elektronikoa ere (Outlook).

Lehiaketaren epaimahai kalifikatzaileak egoki ikusiz gero, ariketak ahoz defendituko dituzte izangaiek, eta agerraldi horren xede izan daitezke, halaber, aurkeztutako merezimenduen eta lehiaketaren xede den lanpostuaren ezaugarrietarako egokitasunaren inguruko galderak.

Proba hori baztertzailerak izanen da eta, bi ariketak kontuan hartuta, 10 puntu beharko dira, gutxienez, gainditzeko.

Proba gainditzeko duten izangaiek lortutako puntuazioa lehiaketaren gainerako ataletan lortutakoari gehituko zaio, haietako bakoitzaren puntuazio osoa zehazteko.

8. oinarria. Txosten psikoteknikoa.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak, proba praktikoa egin ondoren, lehiakide bakoitzari buruzko txosten psikoteknikoa egingen du, eta bertan baloratuko du bakoitzaren egokitasun pertsonala deialdiaren lanpostuaren izaera eta ezaugarrietarako. Txosten horretako gehieneko puntuazioa hamabi puntukoa izanen da, eta izangai bakoitzari emandako puntuazioa loteslea izanen da lehiaketako epaimahai kalifikatzailearentzat.

9. oinarria.- Izangaien zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

9.1. Epaimahaiak izangai guztien kalifikazioa emanen du eta izangaien zerrenda igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, bereiziz eus-

kara titulua eskatzen den lanposturako izangaien zerrenda eta baldintza hori eskatzen ez den lanposturako zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera ordenatuta. Mahaiak, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostuen kopurua handitzeko behar den erabakia hartuko du. Halaber, Mahaiak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

9.2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak puntuaziorik handiena lortu duten izangaiei esleituiko dizkie lanpostuak, eta haien izendapenak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen aginduko du.

10. oinarria. Lanpostuak hartzea.

10.1. Izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaienetik, izendatutako lehiakideek hamar egun naturaleko epean hartu beharko dute lanpostua.

10.2. Aipatu epean, aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da eta, hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

11. oinarria. Aurkeztutako agiriak.

11.1. Izangaiek aurkeztu dituzten agiriak berreskuratu ahal izanen dituzte, halaxe eskatu ondotik; betiere, erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada. Hiru hilabeteko epea izanen da agiriak berreskuratzeko eskaera aurkezteko; aurretik, ordea, beste hiru hilabete utzi beharko dira pasatzen izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

11.2. Aurreko atalean ezarritako epea agiriak eraman gabe bukatzen bada, ulertuko da izangaiak uko egin diola agiriak eskuratzeari eta horretarako eskubidea galduko du eta agiriak suntsituko dira.

11.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkeztu baldin bada, agiri horiek gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Agiri horiek berreskuratzen ahal dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

12. oinarria. Errekurtsuak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-helegitea, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko gauzatzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta, biharamunetik kontaktzen hasita, hilabeteko epean.

I. ERANSKINA MEREZIMENDUAK BALORATZEKO BAREMOA

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen balorazioa deialdia argitaratzen den egunean izangaiak onarturik duen antzinatasunaren arabera eginen da, puntu bat urte bakoitzeko.

– Oharrak:

Lehena. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

Bigarrena. Letra honi dagokion puntuazioa gehienez ere 25 puntukoa izanen da.

Hirugarrena. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

Laugarrena. Deialdia argitaratu ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Bosgarrena. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon den aldietako zerbitzuak, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu den aldietakoak, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolaturiko prestakuntza ekintzetan parte hartu izana: 0,10 puntu, kreditu akademiko edo horren baliokide bakoitzeko (10 irakastordu), gehienez ere 7 puntu eskuratu arte.

– Oharrak:

Lehena. Baloratu beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

Bigarrena. Ikastorduen kopurua agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen balira bezala baloratuko dira.

Hirugarrena. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak balira bezala baloratuko dira.

Laugarrena. Erakunde antolatzailerari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek administrazio publikoetako etengabeko prestakuntzarako itunen barruan antolatuak sartuko dira.

Bosgarrena. Atal honetan ez dira baloratuko ikasketa titulu bat, unibertsitatekoa nahiz unibertsitatez kanpokoa, lortzeko ikasketak.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztu izana, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egin izana, eta aldizkari espezializatueta lanak argitaratu izana, bai eta argitaratutako itzulpenak ere. gehienez ere lau puntu, epaimahai kalifikatzaileak balioetsi beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrak edo argitalpenak herri, eskualde, nazio edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekintzak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea: gehienez ere, lau puntu. Epaimahai kalifikatzaileak balioetsiko du, haien iraupenaren arabera.

– Oharrak, b) letra osoari buruzkoak:

Lehena. Kontzeptu honetan aintzat hartuko dira, soilik, deialdiko lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten merezimenduak.

Bigarrena. Letra honi dagokion puntuazioa gehienez ere 15 puntukoa izanen da.

c) Bestelako merezimenduak. Epaimahaiak ondokoak baloratuko ditu (gehienez ere 5 puntu):

1. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako goi mailako tituluak: 1 puntu, gehienez.

2. Deialdian eskaturiko titulazioaz bestelako erdi mailako tituluak: 0,50 puntu, gehienez.

3. Doktore gradua: 1 puntu, gehienez.

4. Euskara eta beste hizkuntza batzuk jakitea: 1 puntu, hizkuntza bakoitzeko.

Oharrak c) letrari buruz:

Lehena. Hizkuntzen jakite-maila hizkuntza eskola ofizial bateko ziurtagiriarekin egiaztatu beharko da, edo entitate publiko baimendu batek luzatutako ziurtagiriarekin, non titulazioa edo lortutako maila agertu beharko baita.

Bigarrena. Gainditutako hizkuntza ikasmaila osoen kasuan edo titulazio ofizialik lortzeko adina-koak ez diren unibertsitate-ikasketen kasuan, epai-mahaiak erabaki dezake titulazioari eman beharreko puntuazioaren araberrako puntuazio proportzionala ematea.

II. ERANSKINA

DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

Izen-deiturak:.....
 NAN zenbakia:..... Noiz eta non jaioa:
 19...(e)koaren(e)an
 (adinez nagusia),n jaioa. Helbidea
 (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea):.....
;
 telefono zenbakiak (finkoa eta mugikorra):,

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 20....ko
aren(e)an hartutako erabakia-

ren berri izan dut; haren bidez, bi administrari lanpostu huts betetzeko lekualdatze lehiaketarako dei egin da, eta txanda honetan parte hartu nahi dut:

Gaztelania

Euskara

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditut eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Hizkuntza-nahikotasuna frogatzeko proba egi-tea eskatzen dut, deialdian ezarritako ondorioetarako. (Soilik euskarazko txandan parte hartu nahi dutenentzat, baldin eta euskaraz badakitela ezin badute frogatu eskatzen den titulazioaz).

Horrenbestez,

ESKATZEN DUT:

Eskabide honetan aipatzen den lekualdatze lehiaketan onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merizimenduen ziurtagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2008koaren
(e)an.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARI TXIT GARAIA

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduko 25. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua aldatzeko proposamena, zeinaren bidez 25. artikuluari beste idatz-zati bat, hirugarrena, gehitzen baitzaio, eta ikusirik, halaber, erakunde horretako idazkari nagusiaren txostena, biak Nafarroako arartekoak igorritakoak. Ikusirik, azkenik, legelari nagusiak proposamen hori dela eta eginiko txostena.

Ulerturik idatz-zati horrekin bermatzen dela erakundearen kudeaketa arrunta normaltasunez egin ahal izatea arartekoa aldi baterako ezinduta dagoenean eta arartekoaren ondokoaren postua hutsik badago, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Legeko lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean, ERABAKI DUT:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduko 25. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzea. Honako testu hau izanen du:

“3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak aldi baterako ezintasun fisikoren bat badu edo aldi baterako kanpoan badago eta arartekoaren ondokoaren postua hutsik badago, idazkari nagusiari egokituko zaio erakundearen titularraren ordezkari jarraitzea administrazioaren, langileen eta ondarea kudeatzearen arloetako gaiak ebazteko. Idazkari nagusiak emandako ebazpen horiek, ondorio gutzietarako, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak emandakotzat joko dira.”

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Onetsitako aldaketak indarra hartuko du aldizkari hartan argitaratu eta biharamunean.

Iruñean, 2007ko abenduaren 27an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

